

2021-01-22 / 677. ZENBAKIA / 17. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Tokiko merkataritzaren erronka berriak

Urnietako dendariak ia urtebete daramate ez ohiko egoeran murgilduta. Ostalariak, bestalde, eskertza-gutuna argitara eman dute. / 2-3


Amaia Barandiaran
"Baserria" ETB1eko
realityko parte
hartzaileari
elkarriketa / 8-9

Andoaingo ostalarien
kotxe-karabana eta
elkarretaratzea, bizi
duten egoera zaila
gizarteratzeko / 5



Kirolean aritu nahi, eta ezin

Federatu mailako kirolari ugari nahi eta ezinean daude, pandemia garaian / 10-11



"GUZIAK DANTZARI"

DANTZARI BURUZKO EZTABAIDAK ETA GENEROA EUSKAL PROBINTZIETAN (XVIII – XIX)

LIBURUAREN AURKEZPENA

- Urtarrilak 28, osteguna. 19:00.
- Andoaingo Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoa.

"Guziak dantzari" ikerlanak, Bakarne Altonaga Begoña irakasleak buruturikoak, euskal probintzietan XVIII eta XIX. mendeetan izan ziren dantzari buruzko eztabaida eta liskarrak aztertzen ditu, generoaren ikuspegitik aztertu ere.

IZENA EMATEKO: harrera@larramendibazkuna.eus edota **656 782 521**



ANDOAINO UDALA



Marisa Iturbe. AIURRI

“Orain desegonkorra da lehen ziurra zena”

1964. urtean hasi zen Marisa Iturberen aita sukaldeko ekoizle gisa, eta, ondoren, bi hamarkada beranduago, ireki zuten Iturbe altzarien denda Urnietan, hain zuzen, 1988an. Geroztik sukaldeak egiten eta etxeko gainerako altzariak merkaturatzen aritu dira

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ia zazpi hamarkada ematen dute zer ikusia eta ikasia, baina inork gutxi irudikatuko luke osasun-pandemia bat saltokiaren atarian. Hala, beste merkataria askoren gisan, berrasmatzeko gaitasuna eduki behar izan dute Marisa Iturbek eta bere lankideek, negozioak martxan jarrai dezan.

Iturberen esanetan, jendeak denbora luze jo du etxean, eta konturatu da zer falta zaion eta zeintzuk diren bere premiak.

“Nahiz eta bi hilabetez itxita eduki”, dio merkataria, “nahikoa errekuatu dugu”. Oro har, enpresaren egoera ona dela uste du, zeren 2019. urtean baino apur bat gutxiago fakturatu arren, ez baitago alde handirik: “Ezin gara kexatu geure sektorekoak: pozik gaude”.

Itxialdiaren ostean, nabarmenki egin zuten gora erosketek altzarien alorrean, baina, urtearen amaieran (azaroan zein abenduan), eskaria berriro ere jaitsi egin da. Obra txikiagoak

egiten dira orain nagusiki: ateak aldatu, koltxoia aldatu... Joera hori jendeak etxean igarotako ordukin lotu du Iturbek: “Zerbait zaharkituta badago, gehiago nabaritzen dugu, etxean pasatako denboragatik. Etxea eroso edukitzea inportantea da orain, lehen baino inportanteagoa”.

Berrasmatzeko beharra

Bezeroei dagokionez, Andoain da Iturbe altzariak dendarentzat herri garrantzitsuena, eta hari

batzen zaizkio jarraian Villabona eta Urnieta, baita eskualdeko beste hainbat herri ere. Hori dela eta, beren jarduna zaildu dute pandemiari aurre egiteko neurri murriztaileek. Esaterako, soilik ondoko herrien arteko mugikortasuna baimendu zuten pasa den urtearen amaieran. Gauzak horrela, egoerari irtenbidea bilatu nahian, berrasmatu egin zuten beren lana: Urnieta ondoko herrien kasuan, bezeroak joaten ziren saltokira aurrekontuak jasotzera. Alabaina, gainerakoetan, Iturbe bera joan zen bezeroen etxera ordenagailuan proiektua eta aurrekontua erakustera.

Gainera, Urnietan positiboen datuek goia jo zuten azaroan eta eragina izan zuen horrek salerosketan. Iturbek nabaritu du bezeroen partetik “beldur handiagoa” dagoela: “Jendea apur bat dago itxaroten ea zer gertatzen den ikustera. Askok ez digute ezezkoa eman aurrekontuan, baina itxaron egin nahi dutela diote”.

Epeen malgutasuna

Espazio handiko lekua da Iturbe altzarien saltokia; beraz, aforoari dagokionez, ez dute oztoporik izan. Hala ere, proiektuak amaitzeko epea luzatu egin zaie, egoera dela medio. Iturberen esanetan, lehen, 4-6 aste bitartean zuten entrega-epea; aldiz, orain, 8-10 astetara ere luzatu egin behar izan dute zerbait kasutan: “Beti gaude zalan-tzan, izan ere, fabrikatzaile batek itxi egin behar badu, horrek baldintzatu egiten gaitugu. Beraz, gutxi gora beherako data ematen diegu bezeroei”. Hala ere, nabarmendu du bezeroek duten pazientzia eta egoera ulertzeko ahalmena. Sukaldeko materialei dagokionez, ez dira hainbeste luzatu epeak, zeren ez baitaude beste inoren esku, hau da, beraiek dira beren materialaren fabrikatzaile.

Urnietako merkatarien borondatea

Pandemiak salerosketan zuloa eragin arren, Urnietako merkatariek indarra eta gogoia dute berena babesteko eta sustatzeko. “Guk egiten ez badugu, ez du inork gugatik egingo”, adierazi du Iturbek. Horrez gain, gaineratu du “dinamikoak” izan behar direla eta “egoerara moldatzeko gaitasuna” izan behar dutela.

Urnietako herriari

URNIETAKO OSTALARIAK URNIETA

Garai zailak bizitzea egokitu zaizkigu, herritargoarentzat orokorrean, eta ostalariontzat bereziki. Halere, Urnietako ostalariok badugu harro egoteko arrazoirik. Izan ere, kide ditugun merkatariek gure aldeko kanpaina bat jarri zuten martxan bigarren itxialdia agindu eta berehala, “ni ere ostalaria naiz” izenburupean. Bihotz-bihotzez eskertu nahi dugu ekimena. Laguntza ekonomikoaz gain laguntza morala ere suposatu duelako, gure sektorea demonizatua dagoen honetan.

Eta nola ez, urnietarrak ere eskertu nahi ditugu, badakigulako, zinez saiatu zarete la zozketak erosten. Saiatuko gara eskaini eta eman diguzuen laguntza gure eguneroko lanarekin eskertzen. Izan ere gu zuek gabe ez gara ezer. Eskerrik zintzoenak.

Aurrera Urnieta!!”.

Gainera, saltzaileen arteko elkar zaintza lehenetsi du merkataria: “Ostalaritza, esaterako, une gogorak ari da bizitzen. Beraz, ahal dugun neurrian, lagundu egiten diegu. Izan ere, gaur ostalariak dira, baina bihar, behar bada, beste sektore bati tokatuko zaio”.

Bestalde, hainbat ekimen egin zituzten joan den urtean, merkatarien zein ostalarien poltsikoetako zuloa txikitze aldera, eta herrian ikusgarritasuna lortzeko. Lehenik eta behin, herriko dendetan xahutzeko bonoak atera zituzten Udalarekin elkar lanean. Jarraian, #Niereostalarianaiz kanpainari ekin zioten: zozketa-billeteak saldu zituzten, irabazitako dirua ostalariei emateko. Ondoren, gabonetan, parte-hartzaileen artean zozketa egin zen 42 sarirekin. Iturbek uste du dirua biltzea

baino gehiago, ostalaritzak bizi duen egoeraren berri ematea zela ekimenaren helburua: "Urnietak duen herritar-kopurua-ekin ezin da irabazi handirik izan, baina diru hori baino inportanteagoa da jendea konturatzeko zein egoeratan dagoen ostalaritza, eta lagundu egin behar zaiela. Orain desegonkorra da lehen ziurra zena".

Azkenik, urtea amaitu baino lehen, "VIP" kanpaina abiatu dute. Lau sektoretan banatu dituzte herriko dendak eta zerbitzuak: elikadura, osasuna, ostalaritza eta aurreko hiruetan sailka ezin daitezkeen gainerako saltokiak. Hala, lau sektoretan erosita "Vip bezeroa" bilakatzen da herritarra. Ondorioz, 25 euroko bonoa ematen zaio, zoriz tokatutako lau alor horietako batean xahutzeko. Iturbek esan duenez, tokiko merkataritza sustatzen duten horiek saritzeko modua da hori: "Bizitza Urnietan egiten duena oso bezero garrantzitsua da guretzat". Pasa den astean hasi eta otsailaren 28ra bitarte izango dute urnietarrek abantaila horretaz gozatzeko aukera.

Hemendik aurrera, "Urnietako merkataria ostalariak eta zerbitzuak" izenpean egingo dute lan. Hala ere, juridikoki egituratuta ez daudenez, lehengo elkarte (Onbizi) darabilte gestioak egiteko. Iturbek adierazi du pandemiari aurre egiteko ahalleginean 80 bat merkataridau dela. Beraz, indarra badute berriro ere martxan jartzeko. Aurrera begira, oraindik eskuartean ezer berririk izan ez arren, aurki ekingo diote hainbat ekimen egiteari: "Jada pentsatzen ari gara zer egin udaberriari begira. Oraindik ez dakigu zer egin, baina egin, egingo dugu ziur".

"Oso eskertuta gaude, herritarrek gure egoera ulertzen dutelako eta pazientzia dutelako"

MAIALEN ESTARLOA GOYA URNIETAKO OSANE BELAR-DENDA

Orain bost urte pasatxo eutsi zion hernaniarrak Osane belar-dendari, aurretik egondako kideak hiru urtez izan ostean.

Lan-ordu asko izan arren, pozik dago Maialen Estarloa Osane dendako kidea: oso gustukoa du dendan nutrizionistak, baita herritarrekin hartu-emanen aritzea ere. Pandemia aurreikusi ez eta ezustean hartu zuen; beste hainbat esparrutan gertatu bezala, Osanen ere eragina izan du koronabirusak.

Ez da garai erraza izaten ari dendentzat; are gutxiago herrietako tokiko merkatarientzat... Nola bizi duzu egoera?

Estres handiko aldia izan zen martxoa. Jende guztiaren ahotan zegoen gaia, eta ez nuen bestelako gairik hitz egiteko dendara sartzen ziren herritarrekin. Denbora osoan gaiarekin gora eta behera, ni neu ere kiribil horretan sartzeraino. Antsietatea eragiten du horrek. Ondoren, neurriak aridu ahala, astetik astera aldatutako murriztapenetara egokitu nuen dendan. Ezjakintasun handiko egoera izan zen, stres handikoa.

Orain, badirudi ohitu egin garena egoerara. Leku guztietan ikusten dira jende-ilarak, adibidez. Beste bizi-erritmo batetara ohitu gara, eta ez dakigu hori ona den ala ez. Bere alde onak zein txarrak izango ditu, noski.



AIURRI

"GAZTE JENDE ASKOK JOTZEN DU HERRIKO DENDETARA, HORIEN ALDEKO APUSTUA EGITEN ARI DIRA"

Hala ere, Urnietako merkatariek egoerari aurre egiteko borondatea duzue.

Izugarrizkoa, eta oso eskertuta gaude jendearen erantzunagatik; oso pozik. Gure artean batzuek aukera eta ideia berriak sortzea dakar, bizi ematea, alegia. Orain urtebete ekin genion horri guztiari.

"EGOERAK TOKIKO MERKATARITZA AINTZAT HARTZEA ETA SUSTATZEA EKARRI DU"

Idea morderoxka genuen ateratzeko, baina guztia etetea eragin zuen pandemiak. Ondoren, ikusi genuen lehen baino behar handiagoa zegoela, hots, aurretik buruan genituen ideiak martxan jartzeko egoera aproposa zela. Oso proiektu polita bezain inportantea da herri gisa funtzionatzeko.

Urnietako egoera epidemiologikoa kezkarria zen urte amaiera aldean.

Jendeak beldur handiagoa zuen, etxean sartuta zegoen, eta kaleak hutsak zeuden, hilda. Hala ere, beti zegoen mugimendua; azken finean, jendeak etorri egin behar zuen erosketak egitera. Ohiturei dagokionez, orain erosketak handiagoak egiten dira; aldiz, lehen txikiagoak ziren, eta maiztasun handiagoarekin etortzen ziren herritarrek. Jendeak beldurra sentitzen du eraikin txikiak eta itxietara sartzeko. Aforoagatik ere ilarak egiten dira. Baina oso eskertuta gaude, herriarrek gure egoera ulertzen dutelako eta pazientzia dutelako.

Nabaritzen duzu eroslearen aldetik tokiko merkataritza babesteko joera?

Izugarrizkoa. Egoerak bermatu du: batetik, merkatarien arteko harremana sendotzea; bestetik, tokiko merkataritza aintzat hartzea eta sustatzea. Hori ez ezik, gazte jende askok jotzen du herriko dendetara; horien aldeko apustua egiten ari dira, kontzientziatuta daude.

Zer moduzko Gabonak izan dira, aurrekoarekin alderatuta?

Oso antzekoak. Egia da, egun horietan jendea lasaitu egiten dela eta beherakada egoten dela. Baina orain hasten dira urte berriarekin batera egindako promesak eta garbiketa-saioak.



JASO AIURRIKO ALBISTEAK TELEGRAMEN!

- Jaitsi Telegram aplikazio ezaguna.
- Sartu, **Aiurri Urnieta**, **Aiurri Andoain** edo **Aiurri Aiztondo** kanalean.
- Batu zaitez (UNIRME) eta jaso eguneko albiste nagusiak.

**ESKUALDEKO
NORTASUN
HITZAK**



Intzidentzia tasari adi-adi, Andoainen zein Urnietan

Urnietako intzidentzia tasa eremu gorriaren ertzean dago, urtarrilaren 15etik 19ra 21 kasu positibo agertu baitziren. Joera horren ondorioz alarmak piztu dira. Andoainen ia milaraino iritsi zen intzidentzia tasa, eta bi egunez jarraian apur bat jaitsi egin da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Eremu gorrian sartzeak lehenik eta behin ostalaritzari eragiten ziola ikasi genuen. Baina, joan zen astetik aurrera eremu gorrian sartzeak zeharkalte gehiago ekartzen ditu. Nagusiki, itxiera perimetrala eta kirolari lotutako galerazpen gehigarriak. Andoain eta Urnieta Euskadi osoan nozitzen ari den igoeraren parte dira. Ez da, ez, kontsolamendua. Konstatazioa baizik. Bi herrietan, nolanahi ere, urtarrikoa aldaparekin lotu beharko da. Esamoldea zertxobait aldatu eta aldaparen ordean penditza jarri beharko da. Azken hamar egunetako igoera ikusgarria izan baita. 128,85ekoa zen Urnietako intzidentzia tasa, urtarrilaren 11n. Astebetera, 467,06raino igo da.

Urnietako kasuan, txarrenari onena atera nahian, eremu gorrian sartzea bezain erraza izan daiteke irtetea. Baina horretarako urtarrilean nagusi izan den joerara itzuli behar da. Alegia, egunez egun kasu bat edo kasurik agertzen ez zen egoera.

Andoainen urtarri osoa positibotasun maila handikoa izaten ari da. Urtarrilaren 4an 16 kasu positibo agertu ziren, urtarrilaren 8an 18 eta urtarrilaren



Osasun arloko profesionalak txertoa jasotzen ari dira, egunotan. IREKIA

15ean 17. Eta, tartean, 8 eta 10 kasuko egun ugari. Joera honekin, egunak eman ditzake eremu gorrian sartuta. Argi izpi bat bilatu nahian, urtarrilaren 18an intzidentzia tasa metatua 927,41koa izan zen. Eta hurrengo bi egunetan datu hori jaitsi egin da 834,00raino. Goia jo ote du oldarraldi berriak? Hurrengo egunetako datuekin konfirmatu beharko da desio hori.

156 kasu antzeman dira urtarrilaren 1etik 19ra. Batzaz beste-koa eginez, 8,21 kasu dira egunezko. Urtarrilaren 18an eta

19an batzaz bestekoa jaitea lortu zen. Intzidentzia jaisteko desioan, hortxe bigarren heldulekua.

Hirugarren aldagai "positiboa": ID tasa. Azken boletineko intzidentzia metatuaren tasa, aurreko astekoaren tasarekin alderatzen du. Eremu gorrian sartu zen egunean, urtarrilaren 11n, tasa hori 2,84koa zen. Urtarrilaren 19an, berriz, tasa erdiraino jaitsi zen: 1,26.

Intzidentziak goia jo duela desiatzea helduleku bat da, panorama zaillean. Ikustear da.

Urnietako Udalaren oharra

Jorge Segurado Urnietako alkateak adierazpena egin du, prebentzio neurrietan sakontzeko eskatuz

Erredakzioa URNIETA

Urnietako egoera epidemiologiakoarekin oso kezkatuta agertu da: "Izan ere, azken egunetan izandako positiboekin goranzko joera berretsi da, eta gero eta gertuago dugu eremu gorria. Eta denok dakigu zer ekarriko lukeen eremu horretan sartzeak". Besteak beste, udalerrriaren konfinamendu perimetrala, ostalaritza itxia eta Eskola-Kirola etetea.

Erantzukizunerako deia luzatu du, "ezarritako neurriak zorrotz betetzea eskatzen dugu. Badakigu prozesu luzea eta gogorra izaten ari dela, irteteko, gizarte-ratzeko eta gure senide eta lagunekin egoteko gogoz gaudela, baina salbuespenezko egoera baten aurrean gaude, eta egoerak eskatzen duen mailan egon behar dugu, zentzu komunitarioarekin jokatu, guztion osasuna baitago jokoan. Mugatu dezagun kontaktu soziala ahalik eta gehien, sintomaren bat izanez gero, deitu osasun-zentrora, eta positiboak izanez gero edo positibo batekin



Jorge Segurado. UDALA

kontaktu zuzena izan badugu, egin dezagun berrogeialdia behar bezala".

Azken hilabeteetako joerari jarraipena ematea eskatu du alkateak, "berandu baino lehen beste egoera batean egon gaitezen. Udalak laguntza eskatzen dizue beste behin, eta, aldi berean, animoak bidaltzen dizkizuegu besoak jaitsi ez ditzazuen. Ziur gaude guztion artean egoera honi aurre egingo diogula".

Pandemiaren garapena, astez aste

ANDOAIN

- **Urtarrilak 13-Urtarrilak 19:** 61 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 834,00.
- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 64 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,53.
- **Abenduak 30-Urtarrilak 5:** 35 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 413,66 (urt7).
- **Abenduak 23-29:** 18 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 267,65.
- **Abenduak 16-22:** 21 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 200,74.
- **Abenduak 9-15:** 9 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 80,29.
- **Abenduak 2-8:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 194,04.
- **Azaroak 25-abenduak 1:** 26 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 515,22.
- **Azaroak 18-24:** 51 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 796,25.

URNIETA

- **Urtarrilak 13-Urtarrilak 19:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 467,06.
- **Urtarrilak 6-Urtarrilak 12:** 5 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 177,16.
- **Abenduak 30-Urtarrilak 5:** 6 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 112,74 (urt7).
- **Abenduak 23-29:** 1 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 16,16.
- **Abenduak 16-22:** 0 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,09.
- **Abenduak 9-15:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 161,55.
- **Abenduak 2-8:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 113,09.
- **Azaroak 25-abenduak 1:** 4 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 274,64.
- **Azaroak 18-24:** 13 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 306,95.



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- **Osasun Sailak zabaldutako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.**
- **Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.**
- **Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**


w w w . a i u r r i . e u s



IREKIA

Ospitaleratzeen igoera handia

Gabonetako ospakizunen eragina nozitzen ari dira Osakidetzako ospitaleen sarean. Urtearen hasieratik hona egon den igoera ikusgarria izan da. Urtarrilaren 4an 277 lagun zeuden Osakidetzako ospitaleen sarean ingesatuta. Urtarrilaren 19an kopuru hori 465eraino igo zen. Ospitaleratze berriak egonkor samar egonik, gaixorik dagoen pertsona bakoitzaren egonaldia luzea izaten ari dela ondoriozta daiteke. UCI-ZIUtako okupazioa beranduago hasi da estutzen. Hamabost eguneko epean 75etik 97ra igo da.



IREKIA

Birsorkuntza tasa

Oinaerrizko birsorkuntza tasa 1etik gora dago, eta hori ez da berez datu ona. Baina beharunzko joera antzematen hasi da azken egunetan. Astebete atzera eginez, 1,25ean zegoen indizea. Asteak aurrera egin ahala ez da gehiago igo, baina 1,00etik gora darrai.

Ez ohiko txotx garaia dator

Pandemiak jotako bigarren denboraldia hastear da. Sagardoa pitxerretan zerbitzatuko da mahaietan. Zerbitzariak ekarriko du mahaira sagardoa. Mahai bakoitzean sei laguneko taldeak egon daitezke gehienez ere, eta eserita. Orduetegiari dagokionean, 20:00etan itxiko dituzte sagardotegietako ateak, beti ere urtarrilaren 12ko dekretuak indarrean jarraitzen badu.



AIURRI

Udaltzaingoaren kontrolak udalerrien sarrera ezberdinetan

Txistoki zubian edota Karrika-Sorabilla aldean kontrolak ezarri ditu Udaltzaingoak, ostiralean hasita. Igande goizean ere kontrola ipini zuten, esaterako, Aduna eta Andoain arteko mugan. Udalerrira egiten diren sarbideak eta udalerririko irteerak kontrolatzeko ekimenak izan dira, konfinamendu perimetrala ezarri zenetik.

Basurdearen ehiza igandean, Goiburu eta Leitzaran aldean

Konfinamendu perimetrala ezarrita, herrikide asko inguruko naturaguneetara hurbildu dira. Igandean, esaterako, oinezkoek eta kirolariek basurdearen ehizarekin topo egin zuten. Lizar-kola pasealekuaren sarbidean, adibidez, ohartarazpenik ez zegoen. Unanibira iritsita ageri zen lehen oharra. Aiurri.eus gunean irakurleei iritzia eskatu zitzaizen.

UCI-ZIUtako okupazioa igo egin da azken egunetan

Gotzone Sagardui Osasun Sailburuak Euskadi irratian honakoa adierazi zuen: "Gure UCI-ZIU guztiak tentsioan daude, baina ondo daude. Eusko Jaurlaritzako Biziberri planaren arabera, 5 eskenatoki ezberdin aurrikusten ditugu eta orain 3. eskenatokian gaude. Hirugarren horretan gainera egoera on batean gaude".



Akerbeltz, Danena, Bastero eta Trañerumeko kideak, pankartaren atzean. AIURRI

Andoaingo ostalarien adierazpena

"Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu Kotxe Karabana honetan parte hartu duzuen guztioi: Tolosa-Billabona-Andoain, eta kontzentrazio honetara etorri zareten guztioi. Ez da azkena izango, denak adierazten baitu aurtengo urtea 2020a bezain txarra izango dela eta mobilizatzen jarraitu beharko dugula.

Mingarria da entzutea nola esaten duten gure agintariak harrituta geratzen direla Gabonak igaro ondoren positiboen hazkundearekin, ezjakinarekin ere lehendik zekienean, iragarritakoa baino gehiago zela. Gutako askok nahiago genuen lokalak itxita mantentzea, Euskadi eta Espainiako gobernuek benetako borondatea izan balute pandemia behin betirako amaitzeko. Ostalaritza negoziak ireki ziren, gorrian ez zeuden herrietan, eskupeko bat ematearen gastua ekiditeko.

Bigarren itxialdiaren ondoren, irekitzera behartu gintuzten, oraindik baldintza okerragoetan, atzerapausoa izanik. Arratsaldeko 20:00tan edo 18:00tan itxi behar genuen, gehien fakturatzen genuen Gabonetako egunetan.

Sektoreak merezi duen irtenbidea lortzeko, jakin beharko genuke ea Gipuzkoako Foru Aldundiak planen bat garatzen duen ala ez (zuzeneko laguntzak, zerga abantailak, ...). Adostu etorkizunerako itxiera neurriak. Komunikazioak denborarekin izatea adibidez. Zergatik ematen dira laguntzak hain berandu? Alokairuetan eta banku maileguetan bitartekaritza egitea beharrezkoa da... Eta laguntzak baino gehiago, konpentsazioak. Negozio itxiek galera handiak besterik ez dizkigute sortu. Borrokan jarraitu behar dugu! Gure borrokarekin eta gure mobilizazioekin bat egitera animatzen zaituztegu. Ezin gara geldirik egon murrizketa eta itxiera berrien zain. Gobernuen egindako negoziatioetan baliozko agentea izatea lortu behar dugu. Ez gaitu ostalari handiak ordezkatzeko, Ostalaritza Aurrera langile soilak diren ostalari taldea da, ez korbatarekin gabiltzanak. Eta denok bat eginda joan behar dugu. Ostalaritza, aurrera!!"



Kotxe karabana Villabona-Zizurkil aldetik Andoainera iritsi zenean. AIURRI

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

GURASOS GIPUZKOA

GuraSOSek giza-katea deitu du urtarrilaren 23rako

"Osasuna, ingurumena, justizia" lelopean egingo da urtarrilaren 23an, 12:00etan. Eusko Jaurlaritzak Andia kalean duen Gipuzkoako Ordezkaritza eta Kalkutako Teresa Plaza batuko ditu. Diputazio Jauregitik (Gipuzkoa plaza) eta sorospen zentrotik (Bengoetxea kalea) igaroko da.

Instituzioek segurtasunarekiko, osasunarekiko eta ingurumenarekiko duten mespretxua salatu nahi du mobilizazioak eta eskari hau sinbolizatzen dute lau puntuek. Era berean justiziak dagokion legezketasun-kontrola egin dezan eskatu nahi da.

Mobilizazioa errauskailuan izan berri diren eta instituzioek ezkutatu dituzten hiru suterren berriarekin batera dator eta baita ere

GuraSOSek errauskailua geldiarazteko EAEko Auzitegi Nagusian berehala aurkeztuko duen eskaerarekin batera ere.

Era berean, GHK-k egindako ohartarazpen onartezina salatzeko ere balioko du; izan ere, herritarren salaketengatik lege-ekintzak abiarazteko ohartarazpena egin zuen, eta ohartarazpen hori bateraezina da ingurumenaren defentsarako nazioarteko eskubidea askatasunez egikaritzearekin.

**GIZA-KATEA
"OSASUNA,
INGURUMENA,
JUSTIZIA"
LEMAPEAN**

COVID-19 neurriak eta lankidetzak eskaera

Antolaketa ahalegin berezia egingo du pilaketak saihesteko, eta horretarako honako neurri hauek hartu ditu, horietako batzuk berritzaileak.

Ez da azken ekitaldirik izango, ez behintzat ohiko moduan. Azken ekitaldian jendetza bildu ez dadin, antolatzaileek streaming bidez emango dute ekitaldiaren amaiera, eta parte-hartzaileek telefono mugikorretatik jarraituko dute, dauden katearen tokian. Esteka gurasos.org webgunean egongo

da eskuragarri. Itxiera ekitaldia 12:15ean izango da.

Bestalde, antolatzaileek maskara gorriak banatuko dizkiete parte-hartzaileei, GuraSOSen logoa simulatuz. Logoan maskara hori agertzen da, kutsadurak eragindako arriskuaren ikur gisa.

Katean bizikidetzak-unitateak bakarrik egon ahal izango dira elkarrekin. Gainerakoak eta bizikidetzak-unitateak elkarrengandik 3 metrora egongo dira, eta, horrela, kontakturik gabeko kate bat osatuko dute. GuraSOSeko 20 bolondres arduratuko dira katea antolatzeaz eta

dagokion jarraibideak emateaz. Hori bai, komunikabideen laguntza eskatzen da jarraibide horiek zabaltzen laguntzeko eta deialdian parte hartzen duten pertsonen antolaketaren jarraibideak betetzen laguntzeko.

Jendea pilatu ez dadin, antolakuntzak dei egin die gipuzkoarrei dagokien tartera joan daitezke, eskualdeka edo herrika egin den esleipenaren arabera (11:50):

1. Andia-Diputazioa: Urola Kosta Debarrena.
2. Diputazioa-Okendo/Askatasunaren hiribidea 5 (Bankoa) Debagoieta-Goierri-Tolosaldea.
3. Askatasunaren hiribidea, 5. zk., Santa Katalina zubia: Donostialdea.
4. Urumea- Kalkuta plaza: Oarsoaldea-Bidasoa-Buruntzaldea.

**LARUNBAT HONETAN
IZANGO DA,
ETA LAU IBILBIDE
EZBERDIN EGINGO
DITUZTE**

**ANTOLAKETAK
AHALEGIN BEREZIA
EGIN NAHI DU
PILAKETAK
SAIHESTEKO**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxe etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da.
Urietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia.
idezkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi eta Joxe Mari Sagaseta (Urdieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROTIZ** BATZU MUGATUA

ALIATUAK: **HERTERRA**

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Urietako udala

DIRLIZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGRIA: **Bikam**

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



IRITZIA

XABIER LASA BERGARA ANDOAIN

Mintza gaitezen gaztelaniaz, denok dakigu eta

Giza komunikazioetan berehalakotasuna bilatzen dugun garai moderno hauetan, zertarako xahutu indarrak gutxi batzuk ulertzen dugun euskararen aldeko hainbeste adierazpen solemne, kanpaina eta bestelako fanfarreetan? Zertarako hainbeste buruhauste, odol txartze eta amorrazioak ezin bizi gaitezkeela-eta euskaraz normaltasunez?

Zertarako txorakeriatan eta alper lanetan ibili, mugaz alde batekoak edukita denek ulertzen dugun gaztelania, eta bestaldekoek frantsesa...

Horrelakoxeko pentsamenduekin irten nintzen Basteroko erakusketa gelatik ostiralean, ilustratzaile baten bixita gidatua erdizka utzi eta gero. Horrelakoxeko pentsamenduak, buru kontsolagarri gisa, gainean pilatu zitzaizkidan etsipena, amorrazioa eta frustrazioa apaldu nahian.

Porrot kolektibo baten parte hartzaile eta bultzatzaile sentitu bainintzen.

Noa sekuentzia argitzera: ilustratzaile bikain baten bere ilustrazio lanei buruzko azalpen gidatua zen ekitaldiaren funtsa; kultur gile gaztea, kultua, euskalduna, primeran dakiena bere sorkuntza esplikatzen, euskaraz eta gaztelaniaz ere. Hamalau lagun bere azalpenak entzuteko bilduta, erakusgelan. Euskaraz egingo ote zuen galdetu zigun hasieran, eta hamalautik bik, ez zutela ulertuko erantzun zuten. Orduan, bitan egingo zuela agindu zigun. Hasi eta hamar minutura, ea zer iruditzen zitzaigun soilik gaztelaniaz jarraitzen bazuen. Denok isilik geratu ginen, eta ados geundela ulertu zen, noski.

Porrot kolektiboa izan zela deskribatu dut, denok jarri genuelako geure parte, hala izan zedin.

Antolatzaileek bere parte, abenduaren 3an eta abarretan

euskararen aldeko adierazpen instituzional horietan adierazten den konpromisua gero ez dutelako praktikara eraman -kasu honetan behintzat- hitzaldi emailearekin ez lotzean hizkuntzaren erabilera (gure mundu txiki honetan ez daukagu soberan prestigiozko eta erreferentziazko kultur gileak publikoaren aurrean euskaraz mintzatzeko gauza direnak, eta halakoak gertu dauzkagunean, probestu dezagun aukera hori). Udalak antolatutako beste bi ekitaldi etorri zaizkit gogora egunotan, hizkuntza jokaera horren harira: 2019ko ekaineko udalbatzan alkateak udalbatzetan soilik gaztelaniaz mintzatzeko hartu zuen erabaki hura (nahiz eta hurrengo udalbatzan atzera egin erabakiarekin), eta, 2020ko urtarrilean zine zuzendari euskal-euskaldun batek Basteron bertan ostiraleko ilustratzailearen antzera jokatu zueneko hura.

Kultur gileak ere berea jarri zuelakoan nago, "denok gaztelaniaz ulertzen dugunez, erabil dezagun" pentsamendua praktikara eraman zuelako, nahiz eta modu inkontzientean -eta euskaldunok iltzatuta daramagun gaizki ulertutako "edukazio" horrek bultzatuta izan.

Parte-hartzaileek -hamalautik hamabik behintzat- osatu genuen porrotaren hirugarren hanka. Ez genuelako sentitu azalpenak euskaraz entzuteko premiarik; edota sentitu arren, ez genuelako adierazi hala izan zedin. Eta horretan, nirea da lehenengo *mea culpa*, iraganean parte hartu izan baitut euskal hitzun gisa dagozkigun eskubideak eskatzeko estrategiak garatzeko ikastaro horietako batean. Baina ez dakit zertarako, Basteron ikasle txarra naizela argi samar geratu baitzen.

IRITZIA

ALBA CABRERA JAUREGI URNIETA

Erradikalak ginen, erraiaietatik erroetara

Bi aulki gorri dira "Erradikalak ginen" obraren abiapuntua eta bizkarhezurra. Batean, Beatriz Egizabal umoregilea; bestean, Ane Labaka bertsolaria. "Bigarren aldiak inoiz onak izan ohi ez direla diotenei aurka egitera" etorri ziren joan den asteko ostiralean Sarobe arte eszenikoaren gunera. Feminismoak dituen hamaika eztabaidak oinarri, umoretik eta errimetatik abiatu ziren, baita beren erraiaietatik eta eskarmentutik ere, gizarteko auzien erroetara jotzeko.

Argizatuta zegoen aretoa, artistek publikoa ikusi ahal izateko. Hala ere, nahikoa zen begiak itxi eta entzumenari bide ematea, izan ere, obra hasi eta segundu gutxira hartu zuten barre algarek antzokia. Neska gazte promesa izateaz, menopausiaz, gorputzen narriaduraz eta beste hainbat gaiez mintzatuz eman zioten hasiera solasaldiari. "Neu ere zikin sentitzen naiz hilean behin". Hankartean ispilu bat jartzeko beta ere eman zuen hitzordua, besteak beste, ileez, aluaren zimurrez eta zoru pelbikoaz hitz egiteko. Bigotea jantzi eta "ona ona, baino gizona" delakoen azalean aritu ziren bertsotan, baita lehiaketa bat egin ere, ea bietatik nor den

feministagoa ikusteko. Baina dena ez zen kanpora begirako kritika izan: beren zilborrei begira ere ipini ziren bi kideak. Botere-harremanen dikotomiaz hitz egin zuten, zapaltzaile eta zapaldu izatearen arteko hartu-emanaz, alegia.

Galderen erretrikaz auzi korapilotsuak mahaigaineratu zituen Egizabalek; inuzentekieratik, "kontuan hartuta, galdera horiek ez dituela inuzente batek egiten". Labaka, umorearen kontrapuntua izan zen; errimen bidez zer hausnartua eman zion publikoari, oilo-ipurdia ipintzeraino, hunkitzeraino.

Ez zuten nahi ikuskizunean aipatutakoak egia absolututzat hartzea, "gugan kilimak sortzea" baizik. Eta ondo baino hobeto bete zuten hitza; inork gutxik zukutu litzake halako gai sakonak bikotearen gisan, seriotasunaren eta umoregintzaren arteko elkarriketetan. Eskerrak erradikalak izan ziren, diren eta izaten jarraituko duten. Eskerrak.

PD. Ez da kasualitatea emakumezkoa izatea hizpide izan dudana obra ikustera doan gehiengoa. Atera kontuak, irakurle.




Aiurri.eus, astelehenetik igandera



Gizarte ekimenak



Itxiera perimetrala



Ez ohiko hegaztia Orian



Zein da zure iritzia? atala



- Iritzia
- Postontzia
- "Zein da zure iritzia?"

www.aiurri.eus



Kalean bizi bada ere, Sorabilla auzoko Mendiluze gurasoen baserrira maiz joaten da. Okindegi batean lan egin arren, nekazaritza erakargarria zaio oraindik. AIURRI

"Errepikatuko nuke, nahiz eta lehenengoan kalean geratu"

AMAIA BARANDIARAN ETB1-EKO 'BASERRIA' LEHIAKETAKO PARTAIDEA

ETB1eko 'Baserría' realityko lehiakideetako bat izan da, baina aurreneko kanporaketan kalean geratu zen

Xabier Lasa ANDOAIN

Penaz dago horren goiz etxera-tzeagatik eta horretarako erabili zuten moduagatik.

Nolanahi ere andoaindarrari polita iruditu zaio bizipena, eta berriro errepikatuko lukeela adierazi du.

Laburra izan da Baserría saioan egin duzun egonaldia.

Egun eta erdi besterik ez! Ezer-tarako denborarik gabe, kalera!

Gernika-Lumoko baserrira joanda, lehenbiziko goiza bikoteak osatzen pasatu genuen. Bazkaldu ostean, ardiak gobernatzearen eta ohol baten gainean oreka mantentzeko saioak heldu ziren. Gure talde urdinak lehen gaua txabolan egin behar izan zuen, talde galtzailea izateagatik. Txikia zen txabola, aldapan zegoen, eta neri beheko partean lo egitea egokitu zitzaidan, ate ondoan; astoak inguruan sentitu nituen gau osoan, lastoa jan eta jan. Hurrengo egunean, aizkoraren desafioa jokatu genuen, eta hortik etxera!

Esan daiteke, txabolan, afal orduan eman zigula elkarren berri zertxobait edukitzeko tartea. Hartu emanetarako apenas ezer, kanpoan geratu ginen Maitane (Uribe) nire bikotea eta biok.

Damutzen ez parte hartu izanagatik?

Ez eta gutxiago ere! Politia izan da esperientzia. Parte-hartzaileak ezagutzea eta montaje guztia -ekoiztetxeko langileak kamera eta grabagailuekin lanean- ikustea, erakargarria egin zitzaidan.

Kastina nolakoa izan zen?

Whatsappez lagun batek eman zidan saioaren berri, parte-hartzaileak behar zituztela adieraziz. Ni ez naiz gauza haietan ibili zalea, baina berotu egin nintzen, baserri giroko emakumeak aurkitzen komeriak zeuzkatela eta. Izena eman nuenean, Covidagatik kastina bertan behera utzi zuten, eta bost bat minutuko grabazioa egitea eskatu zidaten. Aurreneko grabazioa atzera bota zidaten, luzean ez omen zuen balio! Bigarren ahaleginean, grabazio txiki asko egin nituen, behi, behor eta ardiekin, traktorearekin, segan, aizkoran... Nire buruaren aurkezpena ere egin nuen mugikorraren aurrean. Semeak lagundu zidan grabaketetan. Ondoren, lagun batek montajetxo osatu eta musika jarri zion guztiari.

Zerk animatu zintuen?

Esan dizut ez naizela holako istorioetan ibili sekula, baina ze arrai! Animatu egin nintzen. Ez naiz asko mugitu izan den emakumea, kanpora gutxi atera izan naiz bidaiatzera, baina jendartekoa naiz, saltsero samarra, gogoko dut ni bezalakoa ez den jendea ezagutzea, nireak ez diren ikuspuntuak eta bizipenak entzutea, aberasgarria dela iruditzen baitzait.

Nekazaritzarekin lotura duen saioa izateak ere bultzatu egin ninduen izena ematera. Badu desberdintasuna telebistetako beste realityen formatuekin. ETB2ko Conquis-en superbibentzia da helburu, eta Tele5ko Gran Hermano eta Supervivientes saioetan, berriz, eguna potrojo-rran pasatzen duten lehiakideen arteko bizikidetzat.

Pentsatzen nuen lau baserritarrek bakarrik ikusiko zutela saioa. Oraindik ere jende asko baitago baserri mundua identifikatzen duena animaliekin naturan eguna pasatzen duen pertsona ezjakin eta motzekin. Gainera, ETB1 normalean euskaldun gutxi ikusten du, eta erdaldunek apenas. Baina hara non, arrakasta eduki duela audientziari dagokionez! Covida dela-eta azken aldiari kaletarrei natura eta mendiarekiko arreta eta nekazaritzarako ikusmina piztu zaielako ote?

Arrakasta esan duzu. Zenbat jende gerturatzen ari zaizu egunotan?

Kalean, jendea ari zait komentarioak egiten, bai. Denek zorian ematen dizkidate, aizko-

raren proban zuzen jokatu genuela esanez. Eta ikustez bakarrik ezagutzen nautenek, kalean begira-begira geratzen zaizkit muxukoa dela-eta, telebistako Amaia baserritarra ote naizen ala ez zalantzan. Beasainen ogi-saltzaile gisa lan egiten dut supermerkatu batean, eta han ere bezeroak agudo asko jakin dute bertako langile bat telebistan atera dela.

Kanpoan geratu, eta biharamonean, Klaudio Landaren Eztabaidan saioan hurrengo egunean parte hartzera gonbidatu gintuzten Maitane eta biok. Saioa, asteartean emititu zen. Nonbait, egundoko igoera izan omen zuen audientziak ETB1n kamera aurrean egin genuen ordu laurden horretan; halaxe komentatu ziguten gero, behintzat, lehiakide guztiek daukagun taldeko whatsappean. Nire ustez, ez ekoiztetxeak ezta ETB1k ere aurrez ez zuten igarri halako arrakasta edukiko zuenik. Grabazioko lehen egunean bertan, langileei askotan galdetu genien ea zer asmo zeukaten, ea zenbat saio emitituko ote zituzten, ea antolatuko ote zuten eztabaida saiorik El Conquis-en bezala... Eta haien erantzuna, inoiz ez zen garbia, “segun hau” eta “segun bestea”. Eztabaida saioan kanporatutako lehiakideekin tarte finkoa sortu izanak ere pixka bat istorioa gainezka etorri zaiela eta inprobisatzen ari direla erakusten du, nire ustez.

Geroztik, berriro ere deitu zidaten saio horretatik joan den asteartean parte hartzeko.

Errepikatuko zenuke bizipena, aukera edukiz gero?

Bizitutakoa bizitu ostean, probatzeagatik, zergatik ez? Nahiz eta baserritik ez eduki asko. Hori bai, zenbait proba fisikoe-tarako mugak dauzkat eta ez dakit balioko nukeen: izan ere, 16 urterekin belauneko ebakuntza egin zidaten, eta geroztik boladaka puztu egiten zaidanez, ez nago saltoka eta korrika ibiltzeko moduan. Gainontzean, edozertarako prestatuko nintzateke. Bonbardaketa batera ere



Gaztetan artzain aritu zen Amaia. AIURRI

animatzen den horietakoa bainaiz...

Gogo horrek ez du zerikusirik diru sariarekin, argi gera bedi. Baserrira-ekin ere ez da halakorik izan. Irabazlearentzat haindainoko dirua ez dute jarri. Alderik ez lehiakideen bizkar irabaziko dutenarekin! Eztabaidan saioko platora joateagatik ere, ez uste jaso genuenik. **Aizkoraren probarekin izan zineten kanporatuak Maitane eta biak.**

Lanean hasi aurretik bazekien mundu guztiak nork irabaziko zuen. Egia esan, proba horrek eta orekako bigarren probak eman zidaten amorrurik handiena. Batetik, baserritar bati normalki bere egunerokoan ez zaio egokitzen eskuetan esne ontzia hartu eta orekan ibiltzea, ezta ere zuhaitza bertikalean ebakitzea. Eta bestetik, ez dakit zertara zetorren aizkoraren proba jartzea, jakinda Xugane, gure aurkaria, basolanetan aritzen dela. Klaudio Landari horixe esan genion, ea ez ote zen posible probak diseinatzerakoan berdintasun handiagoa jartzea

lehiakideen artean. Era horretan, gainera, emozioan irabaziko bailuke saioak, eta audientzia igo; ez al dute, bada, horixe bilatzen telebistan? Erantzun zigun erantzun zigun gidoia idatzita zeukatela eta ezin zela aldatu.

Natalia Perez lehiakide kaletarra-ekin berebiziko xextra eduki zenuen, eta hori hizpide izan dute askok...

Ez dakit nola esan... Iruditzen zait berezko sena moduko bat badaukadala eta agudo harapatzen dudala jendearen nondik norakoa. Nataliak hasieratik eragin zidan sentsazio okerra. Bere azkazal luzeei buruz egin nuen komentarioa gero etorri zen; izan ere, niri baserri dezentze bixitatzea egoki izan zait, eta sekula ez dut topatu inor baserrian, halako azkazal puskekin! Ez direlako bateragarriak baserri edo etxeko lanak eta azkazal horiek, ez beste ezerengatik! Egia da, nik, batzuetan, fuerte samar mintzatzeko joera daukadala, baina komentarioa ez nuen intentzio txarrez egin.

HAMAHIRU URTEREKin JADA ARITZEN NINTZEN ARDIAK JEZTEN ETA ZAI NTZEN

Bere erantzuna, ordea, neurritz kanpokoia izan zen, niri isiltzeko eskatuz. Egun eta erdi hartan nahiko garbi utzi zuen badaukala gaiztakeria; gero kanporatu ostean bidali zidan mezuak ere (“Amaia, nik azkazalak ondo dauzkat, eta saioan segitzen dut; zu, berriz, kalean...”) horixe berretsi zuen. **Baina saioko egileek ere lehiakideen arteko saltsa hori bilatzen dute... Hori jakin beharko zenuke.** Jakina, eta irudi horiek eta lehiakideen arteko antzeko sesioak ere erabiltzen ari dira promozio iragarkietan, ikusleek esan dezaten “begira, hasi dira elkarren artean mokoka”. Pentsatzekoa da Eztabaida saioan ere esplotatu nahiko dutela morbo hori. Xegone gonbidatzen duten egunean, iruditzen zait epelak botako dituela bere bikote Nataliaren-gatik.

Baserrira gertutik ezagutzen duzu...

Txiki-txikitatik ezagutu ditut ardiak etxean; 13 urterekin jada aritzen nintzen ardiak jezten eta zaintzen. Eskolan aurrerapenik ikusten ez, eta 16 urterekin aitarekin gisa hasi nintzen; izan ere, 300 buruko artaldeak zeukan eta ezinean ibiltzen zen lantokitara joan behar baitzuen. Gogoko nuen bizimodu hori, eta segiko nuen beharbada, baina aitak atzendu egin nuen, hortik etorkizunik ez zegoela esanda. Orduan ez nuen gehiegi ulertu, baina gerora ikusi dut arrazoi zuela.

Zer moduz moldatu zinen orduan artzantzan?

Orain pentsatzen jartzen naiz, eta oroitzapen politak etortzen zaizkit. Udaberri aldean, erdi lo-kuluxkan, goxo-goxo eta isil-isilik jarrita, ardiei begira... Ardiek lasaitasuna behar izan dute, eta baita nik ere. Igual pertsona saltsero eta ipurterre itxura transmiti dezaket, baina nik ere estimatzen dut lasaitasuna, bakea... Denok ere teknologia berrietara makurtzen ari gara eta amorrua ematen ditu horrek, whatsappen mezuak korrika eta presaka hartzera behartuta gaudela ematen du... Harrika botako nuke mugikorra maiz! Komunikatuta gaudela iruditzen zaigu, baina elkarrekin geroz eta inkomunikatuago gaudela esango nuke. Kalean ere jendeari kasu egitea ahazten ari zaigu, hartu emanak eta elkarbizitza galtzen ari gara.

Zergatik uste duzu ez daukala etorkizunik baserriak?

Exijentziak galanki, eta laguntzak gutxi. Horixe da baserritarraren panorama, eta bukatzen ari da baserrira.

Hogeia eta gutxi urte nituela, Aldundiarentzat lanean aritu nintzen. Goizez baserriz baserri, eta arratsaldean Andoaino Darena tabernan zerbitzari; horrela hamar bat urte egin nituen. Urte horietan ikusi nuenarekin nahikoa zait baserriaren errealitatea pixka bat ezagutzeko. Adineko jendea, 60 urtetik gorakoa zen baserrietan topatzen nuen jendea. Denek adierazten zizuten haserre, “nahiko lana daukat hemen, paperekin eta hasteko!”. Seme-alabak kalean lanean, eta ahal zutenean igotzen ziren gurasoei baserrira laguntzera, behiak, ardiak, belazeak... zaintzera. Baina 60 urteko horiek joaten diren egunean, zer gertatuko da hor? Gainera, hasi nintzenean, lankideak esaten zidan: “Amaia, ez dakizu joan deneko hamar urtean zenbat baserri hustu den!”. Gazteren bat edo beste animatzen da baserritik bizi nahian, baina lehenbiziko inbertsioa handia eginda gero, ederki kostatzen zaie burua altxatzea. Bizimodua gero eta garestiagoa (ura, argia, pentsua, zergak...) eta kontrara, arkumea, esate batera, joan deneko 40 urtean salneurri berean mantentzen da. Nahi da haragia ona eta hemengoa, baina hori ezinezkoa da, baserritarrarentzat irabazirik ez bada geratzen.

Zertan zetzan Aldundiarekin zeneukan eginkizun hura?

Usurbiletik hasi eta Asteasu-Ernialde bitarte, eskualde horietako baserri ugari aritu nintzen albaritiei-eta laguntzen. Osasun-kanpainak izaten ziren: ardiak, ahuntzak, idiak, behiak... zentsatu, gaixotasunen aurkako txertoak jarri... Gustuko lana izan zen, baina gogorra egin zitzaidan hasieran. Batetik, abelburuen mingain urdinaren gaixotasun infekziosoa zela-eta, baserritarrek ez gintuzten ikusi ere egin nahi, eta aparte, emakume bat eta gaztea tartean egoteak ez zien grazia askorik egiten. Kostata eta poliki-poliki, baina azkeneko normal ametitutu ninduten, ni ere baserritarra nintzela eta banekiela zertaz ari ginen ohartzen hasi zirenean; adiskidetu egin nintzen askorekin.

POLITA IZAN DA ESPERIENTZIA. PARTE-HARTZAILEAK ETA MONTAJE GUZTIA EZAGUTZEA

SALTSERO ITXURA TRANSMITI DEZAKET, BAINA NIK ERE ESTIMATZEN DUT LASAITASUNA, BAKEA



Ander Setien. AIURRI



Nagore Huizi. AIURRI



Asier Iraola. EIBAR CF

Mikel Arberas ANDOAIN/URNIETA

Epe erdi eta luzera planak egitea ezinezko bilakatu da, pandemia garaian. Egoera azaltzeko hiru kirolarien lekukotza jaso dugu.

ANDER SETIEN, EUSKALDUNA FUTBOL TALDEKO JOKALARIA.

Egutegi gorabeheratsua edukitzen ari zarete aurten?

Aurrendenboraldia oso berandu hasi genuen, abuztu amaieral-dean. Denboraldia ere berandu samar eta, gainera, lehen jardunaldia soilik jokatu genuen. Beraz, denbora luzez jokatu gabe egon ostean, abendu amaieran berriro ere entrenatzeari ekin genion. Gauzak horrela, dagoen egoera ikusita ez dakigu partida gehiago jokatu diren ala ez. **Zer jazoko da ligarekin partida gehiago jokatzen ez badira?**

Denboraldia partida bakarra jokatuta amaituko balitz, guztia bertan behera geratuko litzateke la pentsatzen dut. Maila igoe-rak ez lirake egongo; izan ere, pasa den urtean izan ziren, eta era berean, ez zen talderik jaitsi. Gauzak horrela, nolabait esateko, oreka hautsi zen. Hala ere, zaila da asmatzea Federazioak zer egingo duen.

Kirolaren mundua ez-egonkorra dirudi; martxan jarri eta gelditu, denbora guztian...

Mugak eta neurriak jarri egin behar dira, baina arau horiek logikarekin eta zentzuarekin ezarri behar dira. Batez ere, arlo honetan aritzen garenok gauzak argi edukitzeko. Horrenbeste aldaketa egin dira, nahasmena sortzen dela sarritan.

Ziurgabetasuna kirol jardueretan

FUTBOLA Ezjakintasun handia nabari handia da kirol munduan, batez ere, maila ez-profesionalean jokatzen dutenentzat. Gauzak horrela talde ezberdinetako hiru kiderekin elkartu da Aiurri. Kirola ezinbesteko jardueratzat jo dute hirurek

Askok diote kirolean ez dela ia kutsatzerik gertatzen, zer diozu?

Aurrendenboraldian, taldean jokatzen hasi ginenetik ez dugu positibo kasurik eduki. Egia da, mementoren batean jokalariren batek etxean geratu behar izan duela entrenatzera etorri gabe PCR probaren zain zegoelako; baina zuzenean kutsatzeengatik entrenamenduak ez zaizkigu bertan behera geratu.

Futbola kanpoan jokatzen denez eta kontaktu estua ez dagoenez, ez zait iruditzen arrisku handia dagoenik. Bestalde, ulergarria da lanean ari direnak entrenatzera ez etortzea, kutsatzeengatik lana egiteari

"DAGOEN EGOERA IKUSITA EZ DAKIGU PARTIDA GEHIAGO JOKATUKO DIREN ALA EZ"

uzteko arriskuagatik. Hala ere, horrelako egoerak ekiditeko, Euskaldunak protokoloa bidali digu eta oinarritzko higiene neurriak zehatz-mehatz betetzen ditu.

Kirola osasuna omen da...

Kirola sustatu egin behar da. Neurriak askotarikoak izan daitezke, baina kirola ezin da geratu. Alde batetik, memento jakin batean koronabirusaz kutsatzen bazara, frogatua dago kirolak gorputza indartzen duela gaixotasunari aurre egiteko. Beste alde batetik, sedentarismoa asko areagotu da itxialdi garaian, eta horri aurre egiteko ezinbestekoa da kirola egitea.

"SEDENTARISMOARI AURRE EGITEKO EZINBESTEKOA DA KIROLA EGITEA"

NAGORE HUIZI, URNIETA KE TALDEKO ENTRENATZAILEA
Kadete mailakoen entrenatzailea Urnietan eta, bitartean, Andoain eremu gorrian...

Urnietan entrenamenduak egin daitezke, baina egia da nire kasuan zailtasunak ditudala leku batetik bestera mugitzeko. Hau

da, ez daukat Eusko Jaurlaritzaren baimen berezirik, kontratu hutsarekin mugitzen ari naiz, langile gisa. Hiru entrenatzaile gara eta batek kale eginez gero, beste biak airean geratzen dira.

Denboraldia berrekingo den bada-kizu?

Adierazi digutenez, seguruenik otsailaren 7an berrekingo diogu denboraldiari. Ulertzen dugu, taldeak entrenatzeko eta prestatuntzarako denbora behar duela. Hala ere, nire zalantzak ditut ea otsailaren 7an benetan lehiatzen hasiko garen.

Taldeak aldaketa asko pairatu ditu?

Aldaketak egon dira, bai. Esaterako, jokalaria batek etxean bizi duen egoera dela medio, denboraldi honetan entrenatzera ez etortzearen erabakia hartu du. Horrez gain, betikoa, kutsatze arriskuagatik eta konfinamenduengatik jokalariai batzuetan etxean geratu behar



andoaINDARRA
euskaraz

izan dute, horrek taldean duen eraginarekin.

Entrenamenduak bertan behera geratuko diren beldur zara?

Mesfidati nago denboraldia bertan behera geratuko ote den. Beste erabilien artean, federazioan esan dutenez aurtengoan ez da maila jaitsierarik ez igoezari egongo. Erabaki horrek geure taldeari negatiboki eragin dio, pentsatzen baikenuen talde indartsua gurea igoera eskuratzeko. Itxaropena guztiz zapuztua geratu da.

Futboleko kutsatzeko arriskua murrizta dela diote...

Geure taldean ez da positiborik egon, ezta arrisku mementorik ere. Kutsatze arriskuren bat sumatuz gero, entrenamenduak bertan behera utziko genituzke.

Bestalde, nabarmendu nahi dut kirola oso garrantzitsua dela; bizi dugun egoeraren aurrean, inflexio puntua da. Azken finean, geure askatasuna mugatua dagoen garaian, kirola lagunekin egoteko gunea eta egunerokotasunetik ihes egiteko tresna da.

Zera gehitu nahi dut, amorratu egiten nauela kirol ez-profe-

sionalari horrenbeste muga jartzea, eta beste maila batzuetan lehiatzeko eta entrenatzeko askatasun guztia edukitzea. Ez da bidezkoa.

ASIER IRAOLA, EIBAR FUTBOL TALDEKO ATEZAINA

Eibar futbol taldeko atezaina zara, eliteko taldetzat jo dezakegu zurea?

Ni ez naiz kontsideratzen eliteko jokalaria, izan ere, semi-profesionalak hirugarren mailatik aurrerakoak izan ohi dira eta nire taldea ez dago maila horretan. Hala ere, esan beharra dago, jasotzen dugun tratua eliteko taldearena dirudiela.

Nola hasi zenuten denboraldia?

Lehenik eta behin aurre-denboraldiari ekin genion, inoiz baino beranduago; abuztu erdialdean hasi ginen entrenatzen. Lagunarteko asko jokatu ezin zirenez, batez ere, entrenamenduak egi-

ten genituen. Ondoren, lehen jardunaldia jokatu genuen eta, bat-batean, guztia bertan behera geratu zen.

Nolakoa da gazte baten egunerokotasuna Eibar futbol taldean?

Gehiengook goizetan ikasi egiten dugu eta arratsaldeetan Eibarrrera joaten gara. Hara iristean, entrenamendua hasi baino lehenago, prebentzio lanak egin eta masajistarena joaten gara. Gehitu beharra dago, egunaren eta astearen arabera entrenamendu ezberdinak egiten ditugula. Esaterako, astean bi egunetan, indar-lanak burutzen ditugu eta, ondoren, baloiarekin entrenatzen dugu.

Saioa amaitzean berriro ere masajistarena joaten gara, sortu daitezkeen ondoezak ekiditeko. Astean lau entrenamendu eta partidua eduki ohi ditugu. Aurtengo egoera dela medio,

beharraren arabera aldaketak izaten ditugu entrenamenduetan.

Egia da Eibar apur bat urrun geratzen den hiria dela eta batzuetan bidaia astuna egiten zaidala; baina badakizue, esaterako dioen bezala, gustuko lekuan aldaparik ez.

Eibar bezalako talde batean prebentzio neurri zorrotzak izango dira, ezta?

Protokoloari dagokionez, oso zorrotzak dira; astero errepasatzen ditugu neurriak. Sei pertsonako taldeetan entrenatu ohi dugu, guneka banatzen gara, esaterako, Donostialdekoak, Bilboaldekoak eta Eibarrekoak. Honela, positibo bat antzemango balute, talde guztia konfinatu beharrean, ingurukoak soilik etxeratu beharko lirateke. Azpimarratu nahi dut, oraingoz geure taldean ez dela kasurik agertu.

Neurri horiez gain, entrenamenduetara joan ahal izateko PCR proba egin ziguten eta oinarritzeko higie-neurriak zorrotz betetzen ditugu.

Eibarko atezaina izanik, Euskal Herriatik mugitzeko "askatasuna" duzu?

Bizkaitarrek eta Donostialdekoak ziurtagiri berezi bat daukagu entrenatzera joan ahal izateko. Andoingo kasuan, gorrian egonda ere, baimena erakutsita arazorik gabe joan gaitzke Eibarrrera.

Badakizu ligarekin zer gertatuko den?

Ez dakigu ezer. Federazioak esaten duena egin beharko da eta haiek hartuko dituzte neurriak. Bestalde, aukera dagoen bitartean entrenatzen jarraituko dut, lehen esan bezala segurtasun eta higie-neurri zorrotzak hartuta, betiere.

"KIROLA LAGUNEKIN EGOTeko ETA EGUNEROKOTASUNETIK IHES EGITEKO TRESNA BAT DA"

"MAILAZ IGOTZEKO ITXAROPENA ZAPUZTUA GERATU DA, IGOERARIK EGONGO EZ DELAKO"

"BATZUETAN ASTUNA EGITEN DA BIDAIATZEA, BAINA GOGOKO LEKUAN ALDAPARIK EZ"

"AUKERA DAGOEN BITARTEAN TALDEAREKIN ENTRENATZEN JARRAITUKO DUT"



Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotsa

"Aukera asko eskaintzen ditu Ikus-entzunezko Komunikazioak eta modu oso praktikoan ikasten dugu"

NATALIA ARTETXE (Andoain, 22 urte)
Ikus-entzunezko Komunikazioko graduaren hirugarren maila ikasten ari da, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Fakultatean, Aretxabaletako campusean.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik?
Batzilergoan Andoainen bukatu nuen, Gasteizen gradu bat hasi nuen, baina ez zitzaidan gustatu eta ez nuen nire burua etorkizun batean hori egiten ikusten; beraz, hori utzi eta berean gustatzen zitzaidan zerbaite egitea erabaki nuen. Horregatik hasi nuen Ikus-entzunezko Komunikazioko gradua.

Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko Komunikazioko gradua?
Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Arlo desberdin asko lantzen diren gradu bat dela iruditzen zait, bai kazetaritza, argazkilaritza, marketina, gidoigintza... aukera asko eskaintzen dituen gradu bat dela pentsatzen dut eta hori izan zen gradu hau aukeratzeko arrazoi nagusienetarikoa bat.

Mondragon Unibertsitatean egitea erabaki nuen batez ere erabiltzen den metodologiarengatik, dena sekuentziak antolatuta dago, eta lan guztiak oso oso praktikoak dira. Era horretara askoz gehiago ikasten dela uste dut.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?
Orokorrean, oso esperientzia ona izaten ari da. Gauza guztietan bezala, momentu onak eta ez hain onak izan ditut, baina orokorrean asko ikasten ari naizela eta ikasten ari naizenarekin pozik nagoela esan dezaket.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Lehen aipatu dudanez bezala, gure fakultatean erabiltzen den metodologia oso praktikoa da. Ia ez dira azterketarik egiten. Gai desberdinekin zerikusia duten proiektu praktikokoak egiten dira eta horiek dira baloratzen direnak.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna?
Publizitatea eta marketinaren mundua da orain arte gehien gustatu zaidana.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?
Oraingoz gradua bukatu eta gero ikusiko dugu.

www.mondragon.edu/prest



Miren Arrieta eta Nerea Mazo aktoreak, Sarobe arte eszenikoen gunean. AIURRI

"Lanean jarraitu beharra dago Euskarazko edukiak zabaltzeko"

MIREN ARRIETA ETA NEREA MAZO AKTOREAK

"Ameriketako bidaia" obra estreinatuko dute Saroben, hilaren 27an. Tanttaka Teatroa konpainiak taularatuko du

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Etiketetik datorkio Nerea Mazori interpretazioarekiko zaletasuna, izan ere, aita izan du erreferentzia hasieratik. Miren Arrietak,

berriaz, Donostiako portu zaharrean egin zuen lan taberna batean, eta bere lankide batek (aktorea denak) eman zion bultzada txikitako ametsari euste-

ko eta aktore ibilbideari ekiteko. Orain urte batzuk ezagutu zuten elkar, "Goazen" telesailerako grabaketa-lanetan. Gainera, biak ala biak bizi dira Madrilan eta

aktoreentzako eskola batean ikasten dute. Bidea zaila izan arren, aitortu dute gogotsu dardela. Egun, Saroben dabilta, Tanttaka Teatroa konpainiak sortutako "Ameriketako bidaia" prestatzen: Mazok Jone gorpuztu du, eta Mariaren azaletik ariko da Arrieta.

"Ameriketako bidaia" obra ari zarete prestatzen, Tanttaka Teatroaren eskutik.

Miren Arrieta: Bi neska euskaldunen istorioa kontatzen da. 16 urte dituzte protagonistek, eta AEBtara doaz ikasturtea igarotzera. Dallaseko aireportuan ezagutzen dute elkar, eta hasiera batean, ez dira oso ongi moldatzen, elkarrengandik oso ezberdinak direlako. Alabaina, bietako bati soinean daraman guztia ostutzen diote (dokumentazioa barne), eta Mexikora eraman nahi dute, estatuan ilegalki dagoelakoan. Gauzak horrela, bi nerabeen abentura du hizpide obrak.

Nerea Mazo: Horrez gain, jatorriaren arabera pribilegioez ere mintzo da antzezlan. Bestalde, publiko nerabeari azaltzen saiatzen da zein garrantzitsua den kanpora joatea, bidaiatzea eta beste kultura batzuk ezagutzea.

M: Dena oso tonu komiko batean dago kontatua, oso arina da ikusteko. Formatu familiarra da, baina egia da balore garrantzitsuak nabarmentzen ditugula. **Jone eta Maria dira protagonistak, elkarrengandik oso desberdinak. Zertan bereizten dira?**

N: Joneri izugarri gustatzen zaio Amerika. Hori dela eta, "amets amerikarra" bizi nahi du. Ilusio handiarekin doa, eta, bat-batean, konturatzen da ur handitan sartu dela, edo sartu dutela. Beraz, jabetzen da guztia ez dela berak uste bezalakoa.

M: Kontrakoa da Maria. Behartuta doa esperientzia hori bizitzera. Burugogorra da, kexatia. Etxera itzuli nahi du. Baina, ondoren, Joneren bila igarotzen dituen hiru egun horietan, oso jende jatorra ezagutzen du. Ikusizunaren bukaera bi pertsonaiek oso esperientzia polita bizitzen dute. Biak bueltatzen dira zerbait ikasita.

Hain gaztetatik ezaguna izateak eragozpenak al ditu? Kontuan hartuta, esaterako, haur askoren erreferente bilakatu zaretela.

M: Niri "Goazen"-ek ateak zabaltu dizkit. Nolabaiteko aitor-

tza eman digu Euskal Herrian. Ondorioz, horrek lagundu du hainbat ekoizpen-etxek eta konpainiak gurekin kontatzeko garaian. Egia da bere momentuan proiektu oso handia izan zela, arrakastasua. Izan ere, haur askok jarraitzen gintuzten. Baina nik uste dut aldi hori gero eta gutxiago nabari dudala. Azken finean, aktore lana proiektu-tuka doa: egun batean mundu guztiak ezagutu zaitzake; aldiz, hurrengo egunean ez da inor zurekin oroitzen. Horrenbestez, garrantzitsua da proiektu baikoiztetik zerbait ikastea.

Deigarria egiten al zaizue "Goazen" telesailako jarraitzaile gehienak haurrak izatea, edukiak nerabeen arteko gora-beherak hizpide dituztela kontuan hartuta?

N: Nire ustez gertuko sentitzen dute haurrek proiektua, euskaldunak garelako aktoreak. Behar bada, ohituta daude horrelako edukiak beste euskarri eta hizkuntza batean ikusten. Hala, euskararak hurbiltasuna ematen die. Zentzu horretan, hurbileko sentituta, ezagutu nahi dituzu, jakin zer egiten duten. Nerabea zareneara apur bat zu baino zaharragoak hartzen dituzu erreferente gisa; beraz, "Goazen" telesailak interesa pizten die haurrei.

M: Euskaraz haurrei zuzendutako produktu bakarrenetarikoa da, eta oso garrantzitsua da, besteak beste, haurrei hainbat errealitate berri ematea. "Goazen"-en helburua Euskal Herriko errealitatea islatzea da. Orain bi urte utzi genuen guk proiektua, baina uste dut orain geroz eta saio hobeak ari direla egiten. Horrek garrantzia handia du, haurrek ikusitako guztia irensten dutelako.

Nabarmenezkoa da ETB1 kateak euskarazko fikzioaren alde egin zuen apustua joan den urteko amaieran, ezta?

M: Ikus-entzunezkoak kontsumitzeko hainbat plataformek indarra hartu dute garaiotan. Behar bada, nerabeak ginenean, aukera gutxiago genituen, eta are murriztagoa zen euskarazko edukien eskaintza. Orain, aldiz, gora egin dute produktuk horiek kontsumitzeko aukerak; ez horrenbeste, ordea, euskarazko edukien kasuan. Egia da aurre-erapausoa eman dela horretan, baita zinemagintzan ere. Izan ere, Euskal Herrian nabarmenki ari da hazten. Beraz, lanean

jarraitu behar dugu, gainerako hizkuntzetan eman den gorakada izugarria delako. Ondo dago lehen pausoak ematea, baina horrek ez du esan nahi nahikoa denik. Euskarazko edukiak zabaltzeko lanean jarraitu beharra dago.

N: Gainera, aktore lana edo mundua oso gorabeheratsua da. Beraz, orain egon gaitezke goia jotzen, baina hori mantentzen saiatu behar gara, egun batetik bestera alda baitaiteke egoera. **Zure kasuan, Miren, "Altsasu" telesaillean aritu zara pisuzko pertsonaia baten azalean. Erantzukizuna sentitzen al da horrelako gai hauskorra lantzean?**

M: Altsasu telesaila izan da parte hartu dudun proiektu guztietatik erantzukizun handiena sentitu dudana lana. Izan ere, finean, duela gutxi jazotako istorio bat ari gara kontatzen, eta oraindik jende horrek sufritzen du gertaera horrekin. Niretzat oso garrantzitsua zen jakitea istorioa nola kontatu nahi zen. Oso esperientzia polita izan da. Altsasun bertan egon ginen grabaketa-lanak egiten, eta bai haiek, bai senitartekoak, oso murgilduta egon dira proiektuan. Uneroz sentitu dut erantzukizuna, baina behin han egonda eta ikusita haiek ere begi onez hartu dutela proiektua lasaitu egin naiz. Prest egon dira uneoro beren esperientziak gurekin partekatzeke. Horrek, nolabait, beldurra kendu zidan gainetik eta nire buruari esan nion: istorio hau kontatu beharra dago. **Aldiz, Nerea, "Hil kanpaiak" misteriozko filmean aritu zara aktore gisa. Oso kritika onak jaso ditut lanak.**

Oso pozik gaude. Azken batean, hori da, kritika oso onak jasotzea. Denbora luze egon zen zinemetan Madrilen. Hori oso ona da guretzat. Izan ere, ikus-entzunezko euskarri berriak direla-eta, pelikulek ez dute hainbeste bizirauten karteldegian. Gainera, euskal aktore oso onak egon dira filmean. Nire papera oso txikia izan da, baina harro sentitzen naiz proiektuaren parte izateagatik.

"Ameriketako bidaia" obrarekin estreinatuko zara antzerkigintzan, ezta, Nerea? Zer sentitzen duzu? Sentsazio asko. Hasieran, urduritasuna sentitzen nuen, segurtasun eza. Hala ere, Mirenekin lan egiteak erraztu egiten du prozesua, baita zuzendariarekin,



Nerea Mazo. TANTTAKA

Mireia Gabilondorekin, dudun harremanak ere. Familia bat izan gara uneoro. Oso ondo pasatzen dugu entseguetan. Oso hasiera ona izan dut antzerkigintzan.

Bi euskarrietan ibilitakoa zara, Miren; antzerkian zein pantaila aurrean. Zein nahiago?

Ez dakit zehazki bat edo bestea hautatzen. Egia da antzerkiak nolabaiteko adrenalina ematen dizula. Izan ere, prestaketa-lana azkoz ere luzeagoa da eta ari zara entseatzeko ondoren ohol-tzara igotzeko eta publikoaren aurrean bat-batean antzezteko; egin eta lixto. Egin bezala joan egiten da, eta horrek adrenalina ematen du. Bestalde, kamera aurrean modu ezberdinean egiten da lan; denborak azkarrago doaz. Baina egia da asko gozatzen dudala. Gainera, sorkuntza-prozesuan pieza guztiak solte ikus-

"GARRANTZITSUA DA HAURREI HAINBAT ERREALITEREN BERRI EMATEA"

MIREN ARRIETA



Miren Arrieta. TANTTAKA

ten dituzu, eta, ondoren, emaitza pantailaren aurrean ikustean oso pozgarria da. Lan egiteko bi era dira, baina biek dute bere xarma.

Erronka handia al da zuentzat elebitan antzeztu behar izatea?

N: Obra honen kasuan, euskaraz hasi ginen entseगतzen. Ondorioz, errazagoa da guretzat euskaraz egitea ikuskizuna. Hala ere, gaztelerazko zein ingelesezko zatiak dituen, ez zaigu hainbeste kostatu gaztelerara itzultzea. Hau da, ez da obra guztia goitik behera aldatu. Estreinaldia esan digute gazteleraz egin dugula, Getxoko Udalak hala nahi duelako. Apur bat gehiago kostatzen zaigu, baina eroso.

M: Nire ama hizkuntza euskara da eta emozioekin bat egitea errazagoa egiten zait euskaraz. Baina egia da Madrilen antzerkia gazteleraz ikasten dudala.

"KONPAINIENTZAT GARRANTZITSUA DA SAROBEREN GISAKO TOKIAK IZATEA"

NEREA MAZO

egin nuen apustu horren alde. Azken batean, badirudi aktore munduan aritzeko telesail arrakastatsu batean parte hartu behar duzula, baina ez. Arrakasta lortzeko bidea zaila dela diote askok, oso lanbide gorabeheratsua delako. Nik uste dut gakoa dela lan egitea eta horretan konstantea izatea. Ikuskera hori mantentzea garrantzitsua da.

N: Aktibo egotea da gakoa. Nire kasuan, gainera, gustatuko litzaidake aktorea izan ez ezik, kamera atzeko lanak ere egitea, ikus-entzunezko komunikazioa ikasi baitut. Orain ez dut nire burua ikusten hain gai, baina, aurrerantzean, horretan trebatzea oso interesgarria litzateke. Nahiago ditut aktore lanak, baina kamera atzeko guztia ere interesgarria iruditzen zait.

Saroben ari zarete prestatzen zuen azken obra. Zein nolako garrantzia dute halako aretoek arte eszenikoentzat?

M: Nire ustez ezinbestekoa da, antzerkian batez ere. Benetako antzoki batean entseगतzen egotea izugarria da. Aukera ematen dizu publiko aurrean egongo zaren unea nolabait irudikatzeke. Ez dago jenderik, baina argiak, eserlekuak eta banbalinak daude; guztia dago. Batez ere eskertzen dugu izugarri horrelako aretoek entseगतzeko aukera bermatzea.

N: Gainera, azpiegitura oso ona dauka Sarobek. Finean, antzerkia ez da soilik aktoreen lana, alegia, istorio bat kontatzea; soinuek eta argiek ere eragina dute kontaktetan. Pila bat igertzen dugu; ez da gauza bera etxean edota antzoki batean entseगतzea. Alde handia dago. Oso garrantzitsua da Saroberen gisako tokiak izatea, baita horrelako herri txikietan ere.



Urdinetako
udala

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 21

ANDOAIN Erakusketa

Leire Salaberriaren ilustrazio lanez gozatzeko aukera dago, aste hauetan. **Bastero Kulturgunea.** **Urtarrilak 12-otsailak 4.**

URNIETA Matrikulazioa

Urte berriarekin batera, abian dira B2 eta C1 mailako ziurtagiria prestatzeko ikastaro berriak AEK euskaltegian. **Errekalde kalea, 1.** **607 592 864 / Urnieta@aek.eus**

OSTIRALA 22

ANDOAIN Kontzertua

Willis Drummond musika taldea zuzenean. Kantu indartsuak formatu akustikoan. **19:00, Bastero. 12 euro.**

LARUNBATA 23

DONOSTIA Giza-katea

GuraSOS taldeak deiturikoa, erraustegiari lotutako azken gertaeren aurka. Toki ezberdinetatik aterako da giza-katea. Xehetasunak 6. orrialdean, "Postontzia" atalean. **12:00, Donostia.**

IGANDEA 24

ANDOAIN Batzarraldia

Andoingo Hogar Extremeño elkartearen urteko batzarra, Basteroko ekitaldi aretoan. **10:30, Bastero Kulturgunea.**



Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak. KATXIPORRETA

ANDOAIN "Amaren intxaurrak" pailazoen ikuskizun berriena

Heriotza gaia du ardatz ikuskizun berriak. Haurrek eta familek, eta orohar, komunikateak gaia lantzeko euskarri bat gehiago izan nahi du sudurgorrien azken lanak. Naturak heriotza ulertzen lagundu die Pirritx, Porrotx eta Marimototsi: bizitzaren parte da heriotza ere. **Urtarrilak 23, larunbata. 16:00, 19:00. Bastero Kulturgunea. 12 euro.**

ASTEAZKENA 27

URNIETA Antzerkia

"Ameriketako bidaia", aurre-estreinaldia. **19:00. Sarobe. 5 euro.**

OSTEGUNA 28

ANDOAIN Kontzertua

Korrontzi eta Xabier Amuriza. **19:00, Bastero. 12 euro.**

LARUNBATA 30

URNIETA Batzarraldia

Denda Berri taldearen batzarra. **17:30, Denda Berri.**

OSTEGUNA 4

ANDOAIN Kontzertua

Esti Sistiaga, Mikel Emezabal eta Mikel Urdangarin. **19:00, Bastero. 4 euro.**


ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****En guerra con mi abuelo**

Haurrentzat:
Igandea, 24: 16:30.
Saio bakarra, asteburuan.

El inconveniente

Igandea, 24:
19:00.
Astelehena, 25:
19:00.
Ikuslearen eguna.
Larunbatean saiorik ez da egongo.



SINOPSIS

**El inconveniente**

Zuzendaria: Bernabe Rico. **Gidoia:** Bernabe Rico, Juan Carlos Rubio. **Aktoreak:** Juana Acosta, Kiti Manver, Carlos Areces, Jose Sacristan, Daniel Grao, Eduardo Rejón... **Herrialdea:** Espainia (2020). **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 94 min.

Belaunaldien arteko talka

Sarak gogoko duen etxebizitza erosteko aukera dauka: espazio handikoa, argitsua eta oso oso merke. Eragozpen bat dago, Lola izenekoa. Adinean gora dagoen emakumea da Lola, etxearen jabea. Sarak berarekin bizi beharko du, harik eta Lola

hiltzen den arte. Negozio ona dela uste du Sarak, eta erostea erabakitzen du. Hortik aurrera, filmean zehar bi belaunaldien arteko talka irudikatzen da. Kritikak filmaren alde gizatiarra nabarmendu du, baita Manverren antzezpena ere.

**En guerra con mi abuelo**

Zuzendaria: Tim Hill. **Aktoreak:** Robert De Niro, Christopher Walken, Uma Thurman, Jane Seymour... **Herrialdea:** AEB (2020). **Generoa:** Komedia. **Ekoizpena:** Marro Films. **Iraupena:** 97 min.

Aitonarekin borrokan

Aitona alargundu eta bilobaren etxera doa bizitzera. Aitonak harraren logela hartuko du eta orduan hasiko da gatazka.

Lagunengana joko du aitona aurre egiteko, baina honek ez du hain erraz etsiko. Robert de Niro handiaren film berriena.

Datorren Aiurri astekarian:

Elkarrizketa:
Nerea Arruti
urnietarra
('El Conquistador del Caribe')



"Guziak dantzari" liburuaren aurkezpena Basteron

Urtarrilaren 28an izango da, COVID-19ak galerazten ez badu. Larramendi Bazkunak antolatu du aurkezpena

Larramendi Bazkuna

Komunitatea

Urtarrilaren 28an, ostegunarekin, Basteroko ekitaldi aretoan, "Guziak dantzari" izenburuko liburuaren aurkezpena izango da 19:00tan hasita. "Guziak dantzari", dantzari buruzko eztabaidak eta generoa euskal probintzietan (XVIII - XIX) da liburuaren izenburu osoa eta Bakarne Altonaga egilea izango da aurkezpena egitera bertaratuko dena.

Izan ere, Altonagak XVIII. eta XIX. mendean erromeria eta plazetako dantzaldien eta, oro har, dantzaren inguruan gure gizartearen sortzen ziren eztabaidak eta liskarrak ikertu eta aztertutitu, horretarako generoaren ikuspegia behaketarako abiapuntu gisa ipiniz. Horren ondorioz, Ikertutako diskurtsoen artean erlijiosoa, ilustratua, liberala eta tradizionalista dira nagusi. Lan honen helburu garantzitsuenetarikoak izan dira euskal probintzietan dantzaren eztabaidei buruz historiografiak esandakoa batzea eta generoak eztabaida horien egituraketan izan zuen esanahia ikertzea. Emakumeen eta gizonen arteko harremanaren kudeaketa, bai eta emakumetasunaren eta gizontasunaren esanahiak ere, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar suertatu ziren dantzari buruzko polemiken erdigunean egon ziren.

Bakarne Altonagak kudeaketa horren errailetan ikertu eta gure gizartearen pentsamendu jakin baten eta errealtatearen



Liburuaren azala. BAZKUNA

arteko arrakala azaleratu du, besteak beste, gaur egun lekuz kanpoko eta bitxi gerta dakizkigukeen iritziak eta jarrerak ezagutzera emanez. Oso deigarria gertatzen da, esate baterako, Manuel Larramendik gaiak zuen jarrera beste elizgizonekiko, baita jesuitekiko ere.

Euskal gizarteak iragan hurbilean bizi zuen giroaren zertzeladak ezagutzeko irakurketa oso interesgarria da Manuel Larramendi Kultur Bazkunak argitara eman duena bere Saia-kera bilduman. Ikerlan honekin Bakarne Altonagak II. Manuel Larramendi Ikerketa Saria irabazi zuen 2017. urtean.

Covid19aren segurtasun neurriak direla eta, liburuaren aurkezpena bertaratzeko ize-na eman behar da aurretik harrrera@larramendibazkuna.eus helbidera idatziz edo 656 782 521 telefonora deituz.

Udal aurrekontu proposamenari ekarpenak

Andoaingo EH Bilduk inbertsioen zerrenda helarazi dio Udal gobernu taldeari

Erredakzioa ANDOAIN

EH Bilduk aurrekontuak hobetzeko hamaika proposamen luzatu dizkio Udal gobernuari:

- Ur hoditeria Karrika- Sorabilla proiektua: 40.000 euro.
- Ur hoditeria Goikoplaza – La Salle etorbidea proiektua: 40.000 euro.
- Juanita Alkain saneamendua irtenbideen azterketa teknikoa: 30.000 euro.
- Zerbitzu pabiloia Illarramendin kokatzea, aurreproiektua: 30.000 euro.
- Goiburuko plazarako inbertsioa: 40.000 euro.
- Miranda pasealekuko berdegunea herritarrentzat: 25.000 euro.
- Mimendiko ranpa: 145.000 euro.
- Berdintasun saila, laguntza juridikoa partida sortu: 5.000 euro.
- Merkataritza digitalizazioa: 43.000 euro.
- Zerbitzutako pabiloiaren alokairu guztia jaso aurrekontuetan: 74.000 euro.
- Interneteko sarea beharra dutenentzat: 15.000 euro.

Oposizioko alderdia kritiko agertu da aurrekontu proposamenarekin: "Udal Gobernuak aurkeztu diguna, 2020an garatu ez den aurrekontu berbera da. Pandemia egoerak baldintzatu du urtea, baina inbertsio asko martxan jartzeko aukera egon da eta ez dute egin".

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 23, igandea 24
Monfort: Aita Larramendi, 26.
943 300 913. Andoain.

URNIETA

Larunbata 23, igandea 24
Castilla-Larburu: Urbieta, 7.
943 552 941. Hernani.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Amaia Errazkin
Ezeiza
Urtarrilaren 27an, 24 urte beteko dituzu. Ondo ospatu. Mila muxu aitona Esteban eta amona Mirenen partetik.



ANDOAIN
Nemesio Zatarain
Urtarrilaren 23an urteak beteko dituzu. Zorionak etxeko guztien eta biloben partetik: Unax, Aner eta Oinatz.



ANDOAIN
Miren
Urtarrilaren 19an Miren txikiak 2 urte bete zituen. Zorionak! Muxu potoloak kukita etxekoan partez.



ANDOAIN
Axel del Moral
Eraso
Gure mutikoak 10 urte beteko ditu datorren urtarrilaren 24an. Asko maite zaitugu potxolo!!! Muxu pila etxekoan partez.

Kartel lehiaketa antolatu du Andoaingo Berdintasun Sailak

"Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna 2021" iragartzeko kartel lehiaketarako deialdia egiten du Udalak

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udaleko Berdintasun Sailak kartel lehiaketa deitu du martxoaren 8an ospatuko den Emakumearen Nazioarteko Eguna iragartzeko. Lehiaketan Gipuzkoan bizi diren 16 urtetik gorako emakume guztiek parte har dezakete.

Afitxaren ezaugarriak

65 cm-ko altuera eta 31 cm-ko zabalera izango du kartelak. Ondoko testua azaldu da behar da, nahitaez: "Martxoak 8: Emakumearen Nazioarteko Eguna

2021". Koloretan aurkeztuko dira lanak, eta lehiakide bakoitzak, gehienez ere, hiru kartel aurkeztu ahal izango du. Eduki eta ideari dagokionez, guztiz originalak izan beharko dute. Otsailaren 10a baino lehen aurkezteke Bastero Kulturgunean, eta proposamen bakoitzarekin batera gutun-azal itxi batean egilearen izen-abizenak jarri behar dira.

Sari bakarra izango da, 450 eurokoa, Salkinera atxikitutako dendetan kontsumitu ahal izateko.

Denda Berri adinekoen elkartearen batzaraldia

Urtarrilaren 30ean egingo da, larunbatarekin. 17:30ean hasiko da, elkartearen egoitzan bertan

Erredakzioa URNIETA

Urteroko ohiko batzaraldia egingo dute Urnietan, hilabeteko azken larunbatean. Iazkoaren balorazioa egin eta datorrenaren helburuak finkatzeko baliagarria izango da. Hiru aztergai nagusi izango dira, egoitzan bertan egingo duten batzaraldian:

1. 2020ko diru-sarrera eta gastuen aurkezpena, eta onarpena hala badagokio.
2. 2021erako jardueren egitasmoa, eta aurrekontua.
3. Galde-erreguak.



Denda Berri elkarte. URNIETA

ESKELA

Miren Arratibel Amantegi

Andoain hil zen, 2021eko urtarrilaren 17an



Senarra Iñaki Zubeldia, bere semeak eta alaba Jon, Amaia eta Jokin, Mikel eta Miren. Bilobak Alaia eta Axier. Anai-ahizpak, ezkon anai-ahizpak, ilobak, lehengusuak eta gainerako sendiak.

Eskerrik asko ama eta amona, guretzat emakume eredu garria izateagatik.



Andoain, 2021eko urtarrilaren 18an

Baliatu dezagun etxera eramateko janaria eskaintzen diguten ostalarien aukera

Amama Klaudia

Zumea plaza, 5.
943 03 16 15.

Anqara doner kebab

Kaleberria, 12.
Etxez-etxeko zerbitzua.
943 30 42 89.

Aterpe jatetxea

Goikoplaza, 7.
943 11 79 86.

Babexa

Berria, 12.
Etxez-etxeko zerbitzua.
943 30 36 92.

Gaztañaga Sagardotegia

(sagardo botilak):
Buruntza auzoa.
Etxez-etxeko zerbitzua.
630 12 25 62.

Hiru jatetxea

Juan Bautista
Erro kalea.
943 59 36 00.

Iturri

Bazkardo plaza, 8.
943 24 42 72.

Mizpiradi sagardotegia

(sagardo botilak)
Leizotz, 14.
Etxez-etxeko zerbitzua.
943 59 39 54.

Oloki taberna

Goikoplaza, 4.
943 30 06 03.

Panda de oro

Kale txiki, 24.
Etxez-etxeko zerbitzua.
943 57 64 61 eta
653 55 05 76.

Pizzeria 4'EM

Agustin Leitza, 5.
Etxez-etxeko zerbitzua.
688 85 87 73.

